

emun
Euskara eta
berrikuntza soziala



Ipurua
Merkatu
Plaza

Ipurua merkatu plaza, auzoko gunea. Parte-hartze prozesua.

HIRUGARREN SAIO IREKIAREN AKTA (2020-11-19)

Eibarko Udala
Ipurua Merkatu Plaza



2020ko azaroak 23

e'

Aurkibidea

Aurkibidea.....	1
1. Saioaren ezaugarriak.....	2
1.1. HIRUGARREN SAIO IREKIA.....	2
2. Kokapena.....	2
2.1. NOLA ZATOZ GAURKO SAIORA?.....	3
3. Saioaren garapena.....	3
3.1. IPURUA MERKATU PLAZAREN HELBURUAK, BALIOAK ETA PRINTZIOPIO GIDARIAK.....	3
3.2. ESPAZIOAREN ERABILERA BEHARRAK.....	6
3.3. ANTOLAKETA.....	8
4. Hurrengo pausoak.....	10
5. Saioaren balorazioa.....	10

1. Saioaren ezaugarriak

1.1. HIRUGARREN SAIO IREKIA.

Proiektua: Eibarko Ipuruako Merkatu plaza biziberritzeko partaidetza prozesua. Hirugarren saio irekia.

Eguna: 2020ko azaroaren 19an.

Formatua: Online, zoom bidez.

Ordutegia: 18:00-20:30.

Saioaren helburua: prozesua amaitzea. Zehaztea balioak, erabilerarako eta moldaketetarako aukerak era antolaketara.

Asistentzia: 17 pertsona (12 emakume eta 5 gizon).

Emakumeak	12
Gizonak	5
<i>Guztira</i>	17

2. Kokapena

Prozesuak etenaldia izan zuen martxoan Covid-19 dela eta. Denbora honetan guztian lanean jardun du talde eragileak eta prozesua amaitzeko bilera izan da hau. Egoerak behartuta, online egin behar izan da.


Bileraren lehen zatia orain artekoaren kontakizuna egiteko baliatu da, memoria freskatzeko.

2.1. NOLA ZATOZ GAURKO SAIORA?

Saioan guztiz barneratu aurretik, ariketa bat egin da parte hartzaileen saioa hasi aurreko aldartea zein den jakiteko. Eta aldi berean, ariketa baliatu nahi izan da bozketak egiteko tresna bera ezagutu eta praktikan jartzeko.

Nola nator gaurko saiora?

Mentimeter



3. Saioaren garapena

Ondorengo lerroetan hirugarren saioaren garapenaren berri emango da:

3.1. IPURUA MERKATU PLAZAREN HELBURUAK, BALIOAK ETA PRINTZIPIO GIDARIAK

Aurreko saioetan zehar landu den gaia izan da Ipurua Merkatu Plaza egitasmoak bilduko dituen balioak. Gaurko saiora talde eragilean azken bileretan landu duen sailkapena ekarri da onartua izan dadin.

Zerrenda luzea zenez eta izaera desberdineko ezaugarriak ageri zirenez, hiru multzotan banatzea erabaki da: helburuak, balioak eta printzipio gidariak.

Hauek dira:

HELBURUAK	BALIOAK	PRINTZIPIO GIDARIAK
<ul style="list-style-type: none"> Ipuruako auzoa indartu 	<ul style="list-style-type: none"> Aniztasuna 	<ul style="list-style-type: none"> Autogestioa

<ul style="list-style-type: none"> • Kultura eta baliabideen irisgarritasuna ahalbidetu • Elkarrekintza eta belaunaldi-artekotasuna landu • Aisia hezitzailea sustatu 	<ul style="list-style-type: none"> • Inklusibitatea • Berdintasuna / Feminismoa • Jasangaritasuna 	<ul style="list-style-type: none"> • Irabazi asmorik eza • Erantzunkidetasuna • Horizontaltasuna • Gardentasuna • Euskaratik abiatu
--	--	--

Hauek azaldu ondoren, balio eskalaren araberako ariketa baten bidez hauen oniritzia bilatu nahi izan da. Aurretiaz ezarritako baldintza izan da proposatutako ideien batek 3.5etik beherako balioa lortuko balu (1etik 5erako eskalan), baztertuko genukeela, edo gutxienez, berrikusiko litzatekeela bere birplanteamendurako.

Hauek izan dira bozketen emaitzak:

3.1.1. Helburuak:

Helburuak

Mentimeter



Guztiak lortu dute puntuazio altua, 4.6 - 5 puntu artean jaso baitituzte helburu guztiek. Aisia hezitzaileak jaso du puntuaziorik altuena, puntuazio maximoarekin.


Iruzkinak, galderak edo iritziak emateko aukera ere egon da eta hauek izan dira jaso direnak:

- Ondo
- Oso ados planteatu direnekin. Aurreko saioetan ateratakoak, gainera.
- Beste helburu bat: balorean jartzea ondare arkitektonikoa.

3.1.2. Balioak:

Balioak

Mentimeter




Hemen ere oso altuak izan dira puntuazioak: 4.8 eta 4.9 artean guztiak.

Jasotako iruzkin bakarra hau izan da:

- Denarekin ados.

3.1.3. Printzipio gidariak:

Printzipio gidariak



13

Kasu honetan ere proposatutako guztiek izan dute onarpen maila oso handia. Gardentasuna baloratu da altuen, 4,8ko puntuazioarekin eta euskaratik abiatzearena gutxien 4,2ko puntuazioarekin. Puntuazio guztiak 4,2tik gorakoak izan direla aipatzekoa da.

Iruzkinetan, baina, ekarpen gehiago jaso da eta zalantza handiagoak egon dira puntu honetan. Iruzkinek:

- Udaleko kultura eta aisialdi agendarekin koordinazioan.
- Autogestioa programazioan, antolaketak etab. Baina orokorrean, udalarekin baterako kudeaketa ondo legoke. Udalak laguntza eskaini, finantzatu, ...
- Lehen behin baino gehiagotan komentatu dudan moduan nire jarduerak erdaraz egitea gustatuko litzaidake, espero dut printzipioekin topo ez egitea.
- Duda: irabazi asmorik eza. Kurtso bat baldin badago, gehienez 5€/ordua, non jarriko dugu muga? Hori gidan jaso behar dugu.
- Nik ulertzen dut kulturako edo edozein arlotako profesional bat datorrenean duintasunean lan egin behar dugula, hori delako justu kultura babestea ere bai.

Iruzkinek hauek direla eta, elkarriketa egon da gai hauen gainean. Hauek dira aipagarrienak:

Irabazi asmorik eza: ez du esan nahi ez dagoela jarduera ekonomikorik, eta ezta ez denik duintasunez ordainduko ere. Esan nahi dena zera da, irabaziak ez direla “bazkideen” artean banatuko baizik, eta jarduerak, preziorik baldin badute, zainduko dela zein prezioan jarriko diren jendearentzat, kulturaren eta baliabideen irisgarritasuna bermatzeko.

Euskaratik abiatu: ez da esan nahi aktibitate guztiak euskaraz bakarrik izango direnik, baizik eta Ipurua Merkatu Plazaren oinarritzko hizkuntza euskara izango dela, eta hortik zabalik egongo dela gainerako hizkuntzetara.


3.2. ESPAZIOAREN ERABILERA BEHARRAK

Hurrengo egitekoa eraikinak izango dituen moldaketa beharrei buruzko hitz egitea izan da. Aurreko saioetan landu izan da gaia eta azken saiora ekarri nahi izan da aurretik identifikatutakoak borobiltzeko asmoz.


Hauek izan ziren aurreko saioetan identifikatu ziren beharrak:

- Erabilera anitzeko gelak
- Bilera gelak
- Tailerrak (mahaiak, tresnak, ura, ...)
- Emanaldietarako aretoa (proiektorea, agertokia, ...)
- Egoteko lekuak (liburutegia, sofak ...)
- Sukaldea
- Biltegia
- Taberna?

Parte-hartzaileak taldeetan banatu dira eta 20 minutu izan dituzte elkarrizketarako.



Ondoren, talde bakoitzean aipatutakoak partekatu dira. Emaitza buru mapa honetan jaso da:




Laburbilduz, orokorrean adostasuna dago, bi gairen inguruan izan ezik. Hauetan ez da adostasunik lortu: sukaldea eta taberna. Aldeko zein kontrako argudioak egon dira eta baina ezin izan da adostasunik bilatu.


Erabakia: denbora falta dela eta, erabaki da astebeteko epea zabaltzea aldeko eta kontrako argudioak lantzeko eta ondoren bozketa egitea erabaki hartzeko.

3.3. ANTOLAKETA

Eguneko azken gaia antolaketari buruzkoa izan da. Talde eragileak udan zehar egin dituen bileretan antolaketa erraz baten alde egin du. Hau izango litzateke eskema:



Azalpen hauen ondoren, bakoitzak bere burua talderen batean kokatu du eta horren arabera taldekatzeak egin ditugu hurrengo ariketari ekiteko.



Talde hauen helburua hurrengo egitekoak identifikatzea izan da. Horretarako, taldeak bilera-gela ezberdinetan banatu dira eta hurrengo pausuez hitz egiteko denbora izan dute. Ondoren, talde bakoitzean hitz egindakoa talde nagusian konpartitu da.

Eskema honetan bildu dira esandakoak:



Laburpena:

Osotasun baten beharra azpimarratu da. Horretarako, lehen bileretan talde guztiek batera hartuko dute parte. Eta bertan zehaztuko da azpitalde bakoitzaren egitekoak zein izango diren. Egiten dena jende gehiagorengana zabaltzeko beharra azpimarratu da eta baita agenda lotzen hastearren garrantziaz ere, ahalik eta lasterren martxan hasteko.

Erabakiak: lehen bileretan talde guztien parte hartzearen garrantzia azpimarratu da, martxa hartu bitarte. Behin martxa hartuta, taldeak lanean jarriko dira.

4. Hurrengo pausoak

Tabernaren eta sukaldearen gaia lantzeko argudioak lantzeko bidea zabalduko da. Astebete egongo da ekarpenak egiteko eta ondoren bozketa egiteko bidea zabalduko da.


Ondoren, Emunek prozesuaren memoria txostena eta eraikinaren erabilera gida aurkeztuko dio talde eragileari azken bileran, lehen hilabeteetarako ekintza plan batekin batera.

5. Saioaren balorazioa

Amaitzeko, saioaren balorazioa egin dute parte-hartzaileek. Hau izan da emaitza:

Zer iruditu zaizu gaurko saioa?

mentimeter



Hauek esan dira, besteak beste:

- Azken gaiak erabakitzeko bilera izan da eta ez dugu akordiorik lortu tabernaren eta sukaldearen gaitan.
- Proiektu arkitektonikoa egiteko nahikoa informazio badago. Sukaldea egin ala ez, erabaki daiteke behin behineko instalazioa prestatzea.



- Nik uste gehiegi luzatu dela hasiera bereziki
- Ados nago. Tres horas es demasiado tiempo para una reunión, por muy dinámica que sea.
- Niretzat ere lehen atala luzeegia, bai laburpena, bai balioen atala. Hori bazegoen alde aurretik erabakita... Bestalde, nabarmentzea linean egitea horrelako saioa oso zaila dela eta baliabide onak erabili dituzue, oso aberasgarria.
- Proiektuak indartu behar du oraindik, bidea dago egiteko.